

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1551

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 16koa, Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bitartez zehaztutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten baita. Aipatutako finkak instalazio honen eraginpean daude: Legutioko udalerrian (Araba) «Villareal-Landa CTO.1» 13,2 kV-ko tentsio ertaineko aireko linea aldatzeko proiektua (Goiango «Gallastegi Baserria» 170023150 zenbakiko KTZrako deribazioa).

Espedientea: 01-AT-Y-2020-00057.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkarieren 2021eko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bidez, aldez aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena eman ziren, eta aipatutako instalazio elektrikoa onura publikokoa zela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, onura publikoaren deklarazioak berekin dakar ondasunak okupatu beharra edo eraginpeko eskubideak eskuratu beharra, eta okupazioa presaz egin beharko da, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikulua ondo onartarako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betetz, Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkariek erabaki du ebazpen honen eranskinean agertzen diren eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei eta jabeei dei egitea, Legutioko udaletxean biltzeko (udalerririk horretan baitaude eraginpeko ondasunak), eraginpeko ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko, 52. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

Interesdun guztiak, bai eta eragindako ondasunen gaineko edozein motatako eskubide edo interesen titularrak diren pertsonak ere, pertsonalki edo behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkatuta bertaratu beharko dira, eta titulartasuna egiaztatzen duten dokumentuak (eskriturak, Jabetza Erregistroko informazio-oharrak edo beste batzuk) eta kontribuzioaren azken ordainagiria aurkeztu beharko dituzte, finkako errentariarekin batera (halakorik balego); gainera, egokitzat jotzen badute, peritu edo notario batekin ere joan daitezke.

Aktak 2022ko maiatzaren 12an egingo dira, 11:00etatik aurrera, Legutioko udaletxean. Titular bakoitzari zitazio-zedula bat bidaliko zaio, eta hor zehaztuko dira lekua, eguna eta ordua. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako gainerako argitalpenak ere egingo dira.

Desjabetze-espeditentean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. enpresak onuradun izaera hartuko du.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, argitaratutako zerrendetan agian agertzen ez diren eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek eta interesdunek egoki ikusten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrendetan izan daitezkeen akatsak zuzentzearen. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, 01008 Vitoria-Gasteiz), eta hori egiteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 16a.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkariera,
JESÚS PASCUAL LORENTE.

2022ko apirilaren 6a, asteazkena

ERANSKINA

Finka	Poligonoa	Partzela	Udalerria	Titularrak	Eguna	Ordua
1	5	577	Legutio	Sprilur, S.A.	2022-05-12	11:00
				Arabako Foru Aldundia		
				Automociones Urbi, S.L.		
				Bizkaiko Foru Aldundia		